

# LA PAMPLONESA EN EL GAYARRE 2023
## SIN FRONTERAS

DL NA 397-2023

www.bandapamplonesa.com | www.pamplonaescultura.es

# MÚSICA AMERICANA
## EN COLABORACIÓN CON EL CONSERVATORIO SUPERIOR DE MÚSICA DE NAVARRA

DOMINGO 12 DE MARZO. 12:00



■ **LUIS Mª SAN MARTÍN URABAYEN**

*« La música puede dar nombre a lo innombrable y comunicar lo desconocido. »*
(L. Bernstein)

En su faceta pedagógica, La Pamplonesa colabora con instituciones académicas de todos los niveles. Hoy presenta un formato reforzado con alumnos del CSMN para abordar un exigente repertorio. El título *Música Americana* no conlleva un estilo unitario, sino distintas visiones y propuestas musicales creadas en un mismo entorno geográfico, que responden a estímulos y estilos propios y muy personales.

Compositor, pianista, escritor y director, Leonard Bernstein (1918-1990) fue el primer director de orquesta nacido en los EEUU (Lawrence, Massachusetts) que obtuvo fama mundial. Su debut como director fue el 13 de noviembre de 1943 en el Carnegie Hall y en 1953 fue el primer norteamericano en dirigir una ópera en La Scala de Milán; *Medea,* de Cherubini, con María Callas. En 1985 recibió el premio Grammy por su dedicación a la música. ***Candide*** representa el estilo americano, desenfadado y lleno de efectos. Basada en la novela homónima de Voltaire, se estrenó en Broadway en diciembre de 1956 y permaneció 73 representaciones, siendo criticada porque el libreto era demasiado serio. Hoy destaca su fascinante ***Obertura*** por su frescura y su originalidad. El longevo H. Owen Reed (1910-2014) fue profesor de Composición e Historia de la Música en la Universidad de Michigan. En sus viajes captó la diversidad de la música tradicional americana, europea y caribeña. ***Fiesta Mexicana*** (1949) describe su estancia en México gracias a la Fundación Guggenheim. Los temas utilizados por Reed son de Chapala, Jalisco y Guadalajara, mientras que otros parten de motivos gregorianos y danzas aztecas. ***I. Preludio y danza azteca:*** Las campanas avisan del comienzo de la fiesta a medianoche. Al alba llega la calma, alterada por otro repique de campanas y por los fuegos artificiales. A mediodía una banda se oye a distancia, pero la atención está en los bailarines aztecas, ataviados con brillantes plumas y máscaras. ***II. Misa:*** Las campanas recuerdan que, ante todo, la fiesta es una celebración religiosa. Ricos y pobres se reúnen en los muros de la vieja catedral para honrar a la virgen. ***III. Carnaval:*** El ambiente festivo se refleja mediante varios tópicos mexicanos: el mercado, el circo itinerante, las corridas de toros y las cantinas con mariachis.

John Barnes (1932-1972) estudió composición en la Universidad de Texas. Percusionista de la Austin Symphony, enseñó en la Universidad de Kentucky desde 1966 hasta su trágica muerte en 1972, electrocutado en el jardín de su casa. La ***Sinfonía nº 2*** (1972) muestra su estilo compositivo, menos popular y más moderno. Con tres movimientos contrastantes, está basada en un pequeño motivo (Do#-Re-Fa-Mi) y destaca su brillante orquestación, demostrando el conocimiento de estas agrupaciones. La Pamplonesa la interpretó por primera vez en junio de 2002 y la última en febrero de 2018, junto a los entonces estudiantes del CSMN. Alfred Reed (1921-2005) es uno de los principales autores de música para Banda. Y para La Pamplonesa, que lo ha homenajaeado en varias ocasiones. Formado en su New York natal, posee un catálogo de más de 200 composiciones entre las que destaca ***Praise Jerusalem*** (Alaba Jerusalén): Variaciones sobre un himno de Pascua armenio. De 1986, su hilo conductor es una antigua melodía armenia del siglo VII con el texto: *¡Alaba al señor Oh Jerusalén; Cristo ha vuelto de la muerte, Aleluya!*. La estructura es la de Introducción, tema con cinco variaciones y Final, todo ello desarrollado a partir de elementos del tema original. La introducción presenta el tema principal describiendo el mayor de los milagros: *la tumba está abierta y la tierra tiembla*. En el *Finale* vuelve este tema de una manera casi gloriosa. Las cinco variaciones exploran todas las posibilidades musicales de esta melodía, valiéndose de todos los recursos posibles de la moderna orquesta de viento.

## PROGRAMA

PARTE I

**Candide**
Obertura
LEONARD BERNSTEIN

**La fiesta mexicana**
H. OWEN REED
- Preludio y Danza Azteca
- Misa
- Carnaval

PARTE II

**Sinfonia 2**
JOHN BARNES CHANCE
- Susurrado
- Elevato
- Slancio

**Praise Jerusalem!**
Variaciones sobre un himno Armenio de Pascua
ALFRED REED

**DIRECTOR**
J. Vicent Egea

## PRÓXIMO CONCIERTO

**Mujeres, música y... ¡acción!**
Martes 21 de marzo
Teatro Gayarre. 20:00

DIRECTORA INVITADA:
Isabel González Villar

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
GAYARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA | FUNDACIÓN MUNICIPAL TEATRO GAYARRE
LA PAMPLONESA
CONSERVATORIO SUPERIOR DE MÚSICA DE NAVARRA
NAFARROAKO GOI MAILAKO MUSIKA KONTSERBATORIOA



# LA PAMPLONESA GAYARREN. 2023
## MUGARIK GABE

www.bandapamplonesa.com | www.pamplonaescultura.es

LG NA 397-2023

# MUSIKA AMERIKARRA
## NAFARROAKO GOI MAILAKO MUSIKA KONTSERBATORIOAREKIN BATERA

MARTXOAK 12, IGANDEA. 12:00



■ **LUIS Mª SAN MARTÍN URABAYEN**

*« Musikak izendaezina izendatzen ahal du,*
*eta ezagutzen ez dena komunikatu ere bai. »*
(L. Bernstein)

Bere alderdi pedagogikoan, La Pamplonesak maila guztietako erakunde akademikoekin lan egiten du. Gaur Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleekin indartutako formatua aurkeztuko du, errepertorio zail bati ekiteko. *Musika amerikarra* izenburua ez da estilo batu baten adierazle, aitzitik, gune geografiko berean sortutako ikuspegi eta musika-proposamen ezberdinak biltzen ditu, berezko eta oso pertsonalak diren estimuluen ondorioz-koak.

Leonard Bernstein (1918-1990) konpositore, pianojotzaile, idazle eta zuzendaria izan zen mundu mailako sona erdietsi zuen EEBBetan jaiotako (Lawrence, Massachusetts) lehen orkestra zuzendaria. Zuzendari bezala 1943ko azaroaren 13an egin zuen debuta Carnegie Hallen, eta 1953an Milaneko La Scalan opera bat (Cherubiniren Medea, María Callasekin) zuzendu zuen lehen iparramerikarra izan zen. 1985ean Grammy saria jaso zuen musikari egindako ekarpenagatik. ***Candide*** amerikar estiloaren adierazle da, ausarta eta efektuz betea. Izen bereko Voltaireren eleberrian oinarritutako obra hori, Broadwayn estreinatu zen, 1956ko abenduan, eta 73 emanaldi egitera iritsi zen, libretoa serioegia zelako kritikatu bazuten ere. Gaur egun haren ***Obertura*** zoragarria goraipatzen da, bere freskura eta originaltasunagatik. H. Owen Reed (1910-2014) urtetsua Michigango Unibertsitateko Konposizio eta Musikaren historiako irakaslea izan zen. Bere bidaietan Amerikako, Europako eta Karibeko musika tradizionalaren aniztasunaz konturatu zen. ***Festa Mexikarrak*** (1949) Guggenheim Fundazioari esker Mexikon egin zuen egonaldia deskribatzen du. Reedek erabilitako gaiak Chapala, Jalisco eta Guadalajarakoak dira, aldiz, beste batzuk gai gregorianoetatik eta dantza azteketatik abiatzen dira. ***I.- Preludioa eta Azteken Dantza:*** Kanpaiek festa hasiko dela abisatzen dute gauerdian. Egunsentian lasaitasuna iritsiko da, baina kanpai-hotsek eta su artifizialek urratuko dute berriz ere. Eguerdian banda bat entzuten da urrunean, baina arreta dantzari aztekengan jarrita dago, luma distiratsuz eta maskaraz jantzita baitaude. ***II. Meza:*** Kanpaiek festa batez ere erlijiosoa dela gogorarazten dute. Aberatsak eta txiroak katedral zaharraren hormetan elkartuko dira amabirjina ohoratzeko. ***III. Inauteria:*** Mexikori buruzko zenbait topikoren bidez islatzen da jai giroa: azoka, zirko ibiltaria, zezenketak eta, kantinak eta mariatxiak.

John Barnesek (1932-1972) konposizioa ikasi zuen Texasko unibertsitatean. Austin Symphonyko perkusiojotzailea, Kentuckyko unibertsitatean irakatsi zuen 1966tik 1972an bere etxeko lorategian elektrokutatuta hil zen arte. ***2. Sinfoniak*** (1972) bere konposatzeko estiloa erakusten du, ez hain herrikoia, baina bai modernoagoa. Elkarri kontrastea egiten dioten hiru mugimendu ditu, motibo labur batean (Do#-Re-Fa-Mi) oinarritzen da eta orkestazio distiratsuarengatik nabarmentzen da, talde horiei buruz duen ezagutza erakutsiz. La Pamplonesak 2002ko ekainean jo zuen lehen aldiz, eta azken aldiz 2018ko otsailean, orduan ikasle ziren Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleekin. Alfred Reed (1921-2005) bandarako musikagile nagusietako bat da. Baita La Pamplonesarendako ere, hainbatetan egin baitio omenaldia. Jaioterri duen New Yorken jaso zuen prestakuntza, eta 200 konposizio baino gehiagoko katalogoa du, guztien artean nabarmenena ***Praise Jerusalem*** (Goretsi Jerusalem). Pazkoko ereserki armeniar baten gaineko bariazioak. 1986koa da eta haren hari nagusia honako testu hau duen VII. mendeko doinu zahar bat da: *¡Goretsi jainkoa, O Jerusalem; Kristo itzuli da heriotzatik, Aleluia!* Honako egitura du: Sarrera, gaia bost bariaziotan, eta Amaiera, hori guztia jatorrizko gaiaren elementuetatik abiatu eta garatuta. Sarrerak gai nagusia aurkezten du eta miraririk handiena deskribatzen du: *hilobia irekita dago eta lurra dardarka. Finalean* gai hori ia modu loriatsuan itzuliko da. Bost bariazioek doinu horren aukera musikal guztiak ikertzen dituzte, horretarako haize-orkestra modernoaren baliabide guztiak erabiliz.

## PROGRAMA

I. ZATIA

**Candide**
Obertura
LEONARD BERNSTEIN

**Festa mexikarra**
H. OWEN REED
Preludioa eta Azteken Dantza
Meza
Inauteria

II. ZATIA

**2. Sinfonia**
JOHN BARNES CHANCE
Xuxurlatua
Elevato
Slancio

**Praise Jerusalem!**
Pazkoko ereserki armeniar baten gaineko bariazioak
ALFRED REED

**ZUZENDARIA**
J. Vicent Egea

## HURRENGO KONTZERTUA

**Emakumeak, musika eta... ekin!**
Martxoak 21, asteartea
Gayarre Antzokia. 20:00

ZUZENDARI GONBIDATUA:
Isabel González Villar

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala
GAYARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA
FUNDACIÓN MUNICIPAL TEATRO GAYARRE
LA PAMPLONESA
CONSERVATORIO SUPERIOR DE MÚSICA DE NAVARRA
NAFARROAKO GOI MAILAKO MUSIKA KONTSERBATORIOA